

## Deustu eta San Ignazioko komertzioek eta gazteek ‘Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Egunarekin’ bat egin dute

- Otsailaren 8tik 21era hamabi saltokik euren erakusleihoa emakume ikertzaile baten omenez apainduko dute “#ErakusleihooakO11” ekimenean, Bilboko Udala, Elhuyar eta *Deusto Bizirik* eta *Hiru auzo* komertzio elkarteen kolaborazioarekin.
- Bilboko Bizilabeko gazteek emakume hauek aurkeztu eta esperimentuak egin dituzte bideo bidez.

(*Bilbon, 2021eko otsailaren 8n*).- Bilboko Udalak Elhuyarrekin batera eta *Deusto Bizirik* eta *Hiru auzo* komertzianteen elkarteekin elkarlanean, #ErakusleihooakO11 egitasmoa jarri du martxan Deustu eta San Ignaziokoko hamabi dendatan. Ekimen hau Bizilabe Bilbao, 10 eta 19 urte arteko gazteentzako zientzia- eta teknologia-ekintzak egiteko aisialdi-eskaintzaren baitan kokatzen da.

Otsailaren 11n, ospatuko den Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Egunarekin batera, erakusleihoa apainduko dituzte hamabi saltokik. Establezimendu bakoitza emakume zientzialari bati eskainiko zaio, eta zientzialariaren ilustrazioa eta informazioa erakutsiko dira bertan. Guztira 12 emakume omenduko dira. Gainera, zientzialariaren ikerketan inspiratuta apainduko da erakusleihoa. Horrela, merkatariak emakume zientzialarien bizitzaren eta lanaren dibulgatzale bihurtuko dira, eta, gainera, emakumeek zientziari egin dioten ekarpena ikusarazten lagunduko dute. Horretarako, besteak beste, komertzio hauetan hainbat eskuorri banatuko dira, emakumeen ilustrazio eta aurkikuntzen laburpenekin.

Horrez gain, Bilboko Bizilabeko gazteek, Euskal Herriko gainerako Bizilabeetako gazteekin batera, COVID-19 egoerara egokitutako hainbat **ikus-entzunezko** egin dituzte. Haietan, emakumearen istorioa aurkeztu eta bere ikerketa-gaiarekin zerikusia duten **esperimentua** egin dute. Gainera, esperimentu hauek egiteko gonbita luzatu dute, behar diren materialak eta pausuak ongi azalduz. Pandemia gabeko urtean, saltokietan bertan egingo lituzkete esperimentuak.

Hauexek dira **#ErakusleihooakO11** ekimenean parte hartuko duten saltokiak:

- ✓ Decoración e Interiorismo Julio Aristin (Blas de Otero, 9) – *Eunice Foote, klimatologoa*
- ✓ Flores Rementeria, S.L. (Erdikoetxe, 1) – *Williamina Fleming, astronomoa*
- ✓ teMIMO Centro de Día (Plaza San Pedro, 3) – *Nettie Stevens, Genetikari*
- ✓ Farmacia M.A.Linaza Peña (Heliodoro de la Torre, 11) – *Gertrude Belle Elion, Biokimika eta Farmakologoa, Fisiologian eta Medikuntzan Nobel Saria*
- ✓ Centro Visual Argia (Avda. Madariaga, 37) – *Miriam Rothschild, entomologoa*
- ✓ Farmacia Zubiri Zuaznabar (Avda. Madariaga, 35) – *Dorothy Crowfoot, kimikaria, Kimikan Nobel Saria*
- ✓ Deustuko Liburudenda (Plaza San Pedro, 4) – *Mary Somerville, matematikaria eta zientzilaria*
- ✓ Salon Stilo21 Peluqueria (Avda. Madariaga, 23) – *Jocelyn Bell Burnell, astrofisikoa*
- ✓ Farmacia Arilla Zamora (Calle Blas de Otero, 32) – *Barbara McClintock, ikerlaria, Medikuntzan Nobel Saria*
- ✓ Afede (Blas de Otero, 2) – Poppy Northcutt, matematikaria eta NASAko e ingenaria

- ✓ Farmacia Inma Ilabarrieta (Blas de Otero, 51) – *Berenice Abbott, zientzilaria eta dokumetal argazkilaria*
- ✓ PSIKOLAN (Luis Power, 4) – *Marie Tharp, itsas kartografoa eta cartógrafa oceanográfica y geologoa*

#### **#Erakusleihoko11** webgunea

Ekimen honen baitan multimedia edukia sortu da. Parte hartu duten saltokiak [Bizilaberentzako 11ren webgunean](#) egongo dira ikusgai otsailaren 8tik aurrera. Bilboko **mapan** kokatuta ikus daitezke saltokiak. Horietan klik eginez, erakusleihoko argazkia eta omendutako emakume ikertzailea zein den ikusteko aukera dago. Emakume ikertzaile hauen **ilustrazioak** ere webgunean eskegita egongo dira, euren **istorioekin** batera. Elhuyar Aldizkariak idatzitako istorio hauetan ikertzaileen bizitza, gertaerak eta asmakuntzak biltzen dira. Guztira, Bilbo, Elgoibar, Ermua, Soraluze eta Tolosaldeko 78 saltokik hartu dute parte.

Azkenik, aipatu ekimen hau aurreko urteetan estatu mailan ere egin dela, Zaragozan edo Sevillan, besteari beste.

## COMERCIOS Y JÓVENES DE LOS BARRIOS BILBAINOS DE DEUSTO Y SAN IGNACIO SE UNEN AL ‘DÍA INTERNACIONAL DE LA MUJER Y LA NIÑA EN LA CIENCIA’

- Dentro de la iniciativa “#Escaparates 11F”, del 8 al 21 de febrero el Ayuntamiento de Bilbao, Elhuyar y las asociaciones de comerciantes *Deusto Bizirik* y *Hiru Auzo*, decorarán el escaparate de doce comercios en homenaje a las mujeres investigadoras.
- Jóvenes de *Bizilabe Bilbao* presentarán a estas mujeres y realizarán experimentos mediante vídeo.

(*Bilbao, 8 de febrero de 2021*).- El Ayuntamiento de Bilbao y Elhuyar, con la participación de asociaciones de comerciantes *Deusto Bizirik* y *Hiru auzo*, pone en marcha del 8 al 21 de febrero la segunda edición del proyecto #Escaparates11F en doce comercios de los barrios bilbaínos de Deusto y San Ignacio. La iniciativa se enmarca dentro de *Bizilabe Bilbao*, el centro de investigación para la realización de actividades científicas y tecnológicas dirigida a jóvenes de entre 10 y 19 años, impulsado por el Ayuntamiento de Bilbao y Elhuyar, ubicado en el Centro Municipal de Deusto.

Coincidiendo con el Día Internacional de la Mujer y la Niña en la Ciencia, el 11 de febrero, cada establecimiento homenajeará una mujer científica mediante 12 carteles con ilustraciones e información. Además, el escaparate se adornará inspirado en el tema de investigación de la científica y se repartirán folletos con ilustraciones y resúmenes de sus descubrimientos. De este modo, los comercios se convertirán en divulgadores de la vida y del trabajo de las mujeres científicas y contribuirán a visibilizar la aportación de estas mujeres a la ciencia.

Además, jóvenes de *Bizilabe Bilbao*, junto con jóvenes del resto de centros *Bizilabe de Euskadi*, se han adaptado a la situación COVID-19 y han producido diverso material audiovisual. En ellos se presenta la historia de la mujer y se realiza un experimento relacionado con su tema de investigación. También, invitan a realizar estos experimentos explicando los materiales y los pasos a seguir. En años previos a la pandemia, los experimentos se realizaron en los comercios.

Estos son los comercios que van a participar en #Escaparates11F:

- ✓ Decoración e Interiorismo Julio Aristin (Blas de Otero, 9) – *Eunice Foote, Climatóloga*
- ✓ Flores Rementeria, S.L. (Erdikoetxe, 1) – *Williamina Fleming, Astrónoma*
- ✓ teMIMO Centro de Día (Plaza San Pedro, 3) – *Nettie Stevens, Genetista*
- ✓ Farmacia M.A. Linaza Peña (Heliodoro de la Torre, 11) – *Gertrude Belle Elion, Bioquímica y Farmacóloga, Premio Nobel en Fisiología y Medicina*
- ✓ Centro Visual Argia (Avda. Madariaga, 37) – *Miriam Rothschild, entomóloga*
- ✓ Farmacia Zubiri Zuaznabar (Avda. Madariaga, 35) – *Dorothy Crowfoot, química, Premio Nobel en Química*
- ✓ Deustuko Liburudenda (Plaza San Pedro, 4) – *Mary Somerville, matemática y científica*
- ✓ Salon Stilo21 Peluqueria (Avda. Madariaga, 23) – *Jocelyn Bell Burnell, astrofísica*
- ✓ Farmacia Arilla Zamora (Calle Blas de Otero, 32) – *Barbara McClintock, investigadora Premio Nobel en Medicina*

- ✓ Afede (Blas de Otero, 2) – *Poppy Northcutt, matemática e ingeniera de la NASA*
- ✓ Farmacia Inma Ilabarrieta (Blas de Otero, 51) – *Berenice Abbott, científica y fotógrafa documentalista*
- ✓ PSIKOLAN (Luis Power, 4) – *Marie Tharp, cartógrafa oceanográfica y geóloga*

#### Web “#Escaparates 11F”

Todo el contenido que se ha creado dentro de esta iniciativa estará visible en la [página web de Bizilabe 11 de febrero](#) a partir del 8 de febrero. Por un lado, un mapa recogerá todos los comercios participantes. Haciendo click en ellas se puede ver la foto del escaparate y la mujer investigadora homenajeada. También se podrán descargar las ilustraciones de estas investigadoras y se podrán leer sus historias, escritas por Elhuyar Aldizkaria. En total, se han sumado a la iniciativa, 78 comercios de Bilbao, Elgoibar, Ermua, Soraluze y Tolosaldea.

Por último, mencionar que esta iniciativa se ha desarrollado en años anteriores a nivel estatal, como en Zaragoza o Sevilla.